

Funtsezko elkarteak

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardun dezan. Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Horrela banatzen dira funtsezko jarduerak:

- **Produkzioarekin** loturiko jarduerari dagokionez, diseinua, kantitate jakin batzuetan produktua egiten, eta entregatzea.
- **Arazoak konpontzeko** jarduerak, izenak esaten duen bezela, bezeroen arazoak konpontzen arduratzen dira. Ezagutzaren gestioa eta etengabeko prestakuntza ezinbestekoak dira.
- **Plataformako edo sareko jarduerak**, teknologia eta interneten erabileran oinarritzen dira. Plataformen gestioa, etengabeko mantenua eta plataformen promozionatzea beharrezkoa dute.

Funtsezko jarduerak beharrezkoak dira jarduera hauetarako:

- Balorezko proposamena garatzea
- Bezeroengana iristea
- Bezeroarekin harremanetan jartzea
- Diru-sarrerak sortzea

Badaude kanpoko enpresen esku utz daitezkeen funtsezko jarduerak. Gure kasuan, ekoizpena izango da egingo ez dugun funtsezko jarduera. Izan ere, Decathlon enpresari erosiko dizkiogu iada bizikleta amaituak.. Enpresa honek guretzako bizikletak ekoizteko eta entregatzeko betekizunak ditu.

Badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, gure geuk aurrera eramane beharrezko jarduerak, alegia. Hemen banaketa-jarduera, erosketa-jarduera, eta web gunearen kudeaketa-jarduera.

Banaketa jarduerari dagokionez, gure enpresak modu pertsonalean hartuko du zerbitzuaren eskaintzaren ardura. Gu izango gara, bizikletak alokairuan jarri eta gainontzeko zerbitzuak eskeiniko ditugunak. Gasteizen kokatuta dugun lokala izango da jarduera hauek eramateko erabiliko dugun espazio fisiko garrantzitsua.

Erosketa jarduerari dagokionez, bai txirrindulak baita ere energia pilatzeko bateriak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu. Izan ere, gure enpresak ekoiztuz gero, kostuak asko handituko ziren.

Sareko jarduerari dagokionez, gure enpresako kide den pertsona batek hartuko du ardura. Bera izango da sare sozialen kudeaketa egingo duena eta web orrialdearen mantenimendua eta eguneratze jarduerak egingo dituena.